

IZENA EMATEKO JARRAIBIDEAK

1. **Deskargatu, bete eta sinatu izen emate orria baimen informatuarekin batera era irakurgarrian, posible bada ordenagailuz.**
2. **Deskargatu ordainketa gutuna,** ikastaroaren izen emateari dagokion zenbatekoa ezarritako epean ordaintzeko. Transferentzia edo ordainketa egiterakoan ikastaroaren izena eta NAN-a jarri behar da kontzeptu moduan: **Lehen Sorospenak+NAN.**
3. Eskatutako dokumentazio guztia (**Izen emate orria, baimen informatua eta matrikularen ordainagiria**) ikastetxearen idazkaritzan aurkeztuko da: Martín Barua Picaza 27 behea, 48003 Bilbao (BIZKAIA) edo hurrengo helbide elektronikora atxikita: formakuntza@asfedebi.eus. Helbide elektronikoz bidaliz gero, posible bada pdf formatuan egingo da.

Edozein zalantza izanez gero jarri harremanetan ikastetxeko Idazkaritzarekin jendaurreko arreta ordutegian:

- Astelehenak, asteazkenak eta ostiralak 10:00 - 14:00
- Astearteak eta ostegunak 10:00 - 14:00 eta 16:00 - 19:00

Harremanetarako beste bide batzuk:

- Tel.: 944.037.800 – 944.423.960
- E-mail: endika@asfedebi.eus

4. **Soilik DOKUMENTAZIO GUZTIAREKIN BIDALITAKO eta BEHAR DEN BEZALA BETETAKO INPRIMAKIAK** dituzten instantziak **HARTUKO DIRA ONTZAT.**
5. **Aurreikusitako epe eta eran ikasleek buruturiko izen emateen ezeztatzeen eskaerek EZ DUTE INOLAZ ERE ORDAINDUTAKO DIRUAREN ITZULERA SUPOSATUKO.**
6. **IKASTAROA BURUTZEKO ADINA: 16 URTETIK AURRERA.**

OHARRA.- Matrikulazio edo aurre-inskripzio eskaeran erantsitako edozein dokumentu, manifestazio edo datuetan funtsezko izaera duten omisio, faltsutasun edo zehaztasun eza emateak, edo eskatutako dokumentazioa ez aurkezteak, formakuntza hasi edo gertaera hori jakinarazi den unetik formakuntza jarraitzea eragozteka ekarriko du, egon liratekeen erantzukizun zibila, administratiboa edo zigorretan eraginik izan gabe.

ONARPEN IRIZPIDEAK

Eskainitako formakuntzen eta izaera orokorrekoen deialdian parte-hartzeko baldintzak egiaztatu aurretik, hautagai kopuruak eskainitako plaza kopurua gainditzen duenean, hurrengo onarpen irizkideak aplikatuko dira:

- a) **I.mailarako sarbidea, aurre-inskripzio ordena.** Berdinketa badago, berdinketa hori apurtzeko irizpide bezala Hezkuntza Sailak erabilitako letra ezarriko da, izen eta abizenen arabera, pertsona hautagaien postua erabakitzeko bere menpe dauden hautaketa prozesuetan. 2018-2019 ikasturterako letra hori "V" izango da (EBAZPENA, 2018ko otsailaren 19koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena; honen bidez, argitara ematen da 2018-2019 ikasturtean ordezeko gaiak kudeatzeko prozesuan -baita urtean zehar deitzen den edozein hautatze-prozesutan ere- alfabeto-hurrenkera zehaztuko duen letra zozketaren emaitza.)

Irizpide hori ezartzearen ondorioz, formakuntza hori jasotzeko hautagairen bat plaza gabe geratuko balitz, hurrengo formakuntza eskaintza egoera hori egiaztatzen duten pertsonen lehentasuna izango dute hautagai berrien gainetik.

- b) **II.mailara sartzeko eta ikasketen jarraipena bermatzeko eta horrela dagokion modalitate,espezialitate edo kirol diziplinako graduari altueneko diploma egiaztagiria lortzeko aukera emateko, lehentasuna izango dute ASFEDEBIN modalitate, espezialitate edo kirol diziplinako I maila burutu duten ikasleek eta beste modalitate, espezialitate edo kirol diziplinaren batean Kirol Teknikari Titulaziorik EZ dutenak.**

Izaera orokor bezala, onartzeko irizpidea **batez besteko ponderatua** izango da, ikasketa kargaren, **sartu nahi den modalitate,espezialitate edo kirol diziplinako II.mailaren modulu eta formakuntza eremuetan lortutako kalifikazioen arabera.** Azken kalifikazio hori 1 eta 10 eskala bitartean adieraziko da bi dezimalekin.

Berdinketa izanez gero, onarpena I mailarako ezarritako irizpide berdinak jarraituz burutuko da.

Aipatu onarpen irizpideak aplikatzeagatik, ikastetxean I maila burutu duen pertsona hautagairen bat plaza gabe geratzen bada, hurrengo formakuntza eskaintzako plazen %10a egoera hau egiaztatzen dutenentzat gordeko da.

- c) **III. Maila sartzeko, ikasketa kargaren arabera sartu nahi den modalitate, espezialitate edo kirol diziplinako I eta II formakuntza modulu eta eremuetan lortutako kalifikazioen** batez besteko ponderatua.

Berdinketa izanez gero, onarpena I mailarako ezarritako irizpide berdinak jarraituz burutuko da.

Aipatu onarpen irizpideak aplikatzeagatik, ikastetxean I eta II maila edo II maila burutu duen pertsona hautagairen bat plaza gabe geratzen bada, hurrengo formakuntza eskaintzako plazen %10a egoera hau egiaztatzen dutenentzat gordeko da, lehendabizikoek lehentasuna izango dutelarik bigarrenen gainetik.

- d) Lehen sorospenetako ikastarora sartzeko berdinketa balego, Hezkuntza Sailak bere menpe dauden hautaketa prozesuetan pertsonen postua zehazteko erabilitako letra hartuko da kontuan, abizen eta izenaren arabera, aipatu berdinketa deuseztatzeko. Onarpen irizpide horiek ezarri ondoren, hautagaietako bat plaza gabe geratuko balitz, hurrengo formakuntza eskaintzan plaza guztien %10a gertaera hau egiaztatzen dutenentzat gordeko da, lehenek bigarrenetikiko lehentasuna izango dutelarik.

Erreserbatutako plazen portzentajea honakoa izango da:

- a. Eskainitako plazen **%5a desgaitasun** graduren bat ziurtatzen dutenentzat.
- b. Eskainitako plazen **%5a, Abenduaren 16ko ECD/3310/2002 Agindua indarren sartu aurretiko garatutako formakuntzen** Urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren lehen xedapen iragankorrak aipatzen dituen alde kurrikularrak, betekizun orokorrak, kirol formakuntza jarduerak erregulatzen dituen otsailaren 5eko ECD/158/2014-ak dioen bezala egiaztatzen dutenentzat.
- c. Eskainitako plazen **%5a, Abenduaren 16ko ECD/3310/2002 Agindua indarren sartu ondoren burututako federazio izaera duten formakuntzen** Urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren lehen xedapen iragankorrak aipatzen dituen alde kurrikularrak, betekizun orokorrak, kirol formakuntza jarduerak erregulatzen dituen otsailaren 5eko ECD/158/2014-aren bigarren xedapen gehigarriak dioen bezala egiaztatzen dutenentzat.
- d. Eskainitako plazen **%5a, Abenduaren 19ko 1913/1997 Errege Dekretuaren lehen xedapen iragankorren arabera burututako formakuntzen** Urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren lehen xedapen iragankorrak aipatzen dituen alde kurrikularrak, betekizun orokorrak, kirol formakuntza jarduerak erregulatzen dituen otsailaren 5eko ECD/158/2014-aren hirugarren xedapen gehigarriak dioen bezala egiaztatzen dutenentzat.
- e. **Gutxienez** eskainitako plazen **%10a goi mailako edo errendimendu altuko kirolarientzat**. Plaza kupo horien barruan lehentasuna izango dute goi mailako kirolariek.
- f. **Gutxienez** eskainitako plaza kopuruaren **%10a, I mailako kirol formakuntzara sartzeko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua eta III mailakoetara sartzeko Batxilergo tituluen ordezkoko sarbide proba egiaztatuz sartzen direnentzat.**
- g. **Gutxienez** eskainitako plaza kopuruaren **%25a emakumeentzako gordea** izango da.

Azken egoera hauengatik betetzen ez diren plazak gainontzeko pertsona hautagaiei esleituko zaizkie, horretarako ezarritako lehentasun ordena jarraituz.